

Julio Urkixo, euskalgintza anitzaren ispilu

(Julio Urkixo, a mirror of the variety that exists in the world of the Basque Language)

Lizundia Askondo, Jose Luis

Eusko Ikaskuntza. M^a Díaz de Haro, 11. 48013 Bilbo

BIBLID [ISBN: 978-84-8419-150-6 (2007); 103-109]

Julio Urkixoren euskalgintzaren aniztasuna isladatzen da: 1. RIEV sortu baino lehenagokoa; 2. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia martxan jarri aurrekoa; 3. Gerra artekoa eta 4. heriotza bitartekoa. Aniztasuna, bestalde, bi ikuspegitik: 1. Gaien aldetik, zeren eta hizkuntzalaritzaz, paremiologiāz, onomastikaz, folkloreak, euskararen jatorriaz, arkeologiāz, heraldikaz, etimologiēz, musikaz, literaturaz, bibliografiāz, merkataritzaz eta abar; 2. aniztasun ideologiakoaz, zeren eta tradizionalista izan arren, bera mugitzen zen giroaren inguruan iritzi desberdinetako politiko eta intelektual ugari-ekin harreman oparoak izan bai zituen.

Giltza-Hitzak: Euskal aniztasuna.

Se muestra la pluralidad de la actividad cultural vasca de Julio de Urquijo: 1. Antes de la creación de la RIEV; 2. Antes de la puesta en marcha de Eusko Ikaskuntza y Euskaltzaindia; 3. En el período de entreguerras. 4. Hasta su fallecimiento. Pluralidad, desde dos puntos de vista: 1. Respecto a los temas: lingüística, paremiología, onomástica, folklore, origen del euskara, arqueología, heráldica, etimología, música, literatura, bibliografía, comercio, etcétera. 2. Respecto a la pluralidad ideológica, ya que a pesar de ser tradicionalista, en el ambiente en que se desenvolvía tuvo excelentes relaciones con muchos políticos e intelectuales de diferentes opiniones.

Palabras Clave: Pluralidad vasca.

On y montre la pluralité de l'activité culturelle basque de Julio de Urquijo: 1. Avant la création de la RIEV; 2. Avant la mise en marche d'Eusko Ikaskuntza et Euskaltzaindia; 3. Dans la période de l'entre-deux guerres. 4. Jusqu'à son décès. Pluralité, a partir de deux points de vue: 1. Concernant les thèmes: linguistique, parémiologie, onomastique, folklore, origine de l'euskara, archéologie, héraldique, étymologie, musique, littérature, bibliographie, commerce, etc. 2. Concernant la pluralité idéologique car, bien qu'étant traditionaliste, il avait d'excellentes relations dans le milieu dans lequel il évoluait, avec de nombreux hommes politiques et d'intellectuels d'opinions différentes.

Mots Clés: Pluralité basque.

Julio Urkixokoa, horrela idatziko dut euskaraz, berak ere euskaraz bere izena jartzen zuenean horrela idazten bai zuen, nahiz eta askoz ezagunagoa izan “Julio de Urquijo” erdarazko forma. Horrez gain, Euskaltzaindia sortu eta hurrengo urtera, Akademiaren bigarren idazkariak –lehen Koldo Eleizalde bergararra izendatu eta urte eta erdira hil baitzen– Urkixo jartzen zuen batzar-agirietan, Ramon Intzagarai jaunak, alegia. Bide batez, noiz eskainiko dio kale bat hiri honek hasierako euskaltzain oso donostiar bakarrari? 1920tik 1941arte –praktikan, egia esan, 1936arte– Euskaltzaindiaren bigarren kargu akademikoa, idazkaria izan zenari. Barka ezazue, Gipuzkoako hiriburuan nagoenez, bide batezko donostiar argi honi buruzko aipamen hau.

Euskalari izan zen, ezer izatekotan, “vascólogo”, alegia, Julio Urkixo deustuarra, ez bilbotarra, zeren eta Primo de Riveraren diktadura arte ez bai zuen anexionatu Bizkaiko hiriburuak Uribe merindadeko elizate hau. Euskalari trebe eta aspergaitza izan zen heinean, gaurko hiztegi usuario ohikora aldatuta euskalgintza alorrera ekarriko genuke. Euskalgintza egin zuen, zentzurik nobleen eta zabalenean. Hori da, nik, hemen, gaur, nabarmendu nahi dudana, azpimarratuz, bidenabar, bere aniztasuna.

Hemen, Donostian, alegia, zeren eta bere bigarren herria hau izan bai zen. 1919ko *Euskera* agerkariaren lehen zenbakian, bere helbidea honela agertzen da: “Julio de Urquijo. Zuzenbidea: Centenario 1, San Sebastián, edo: Urkijo-Baita, St.-Jean-de-Luz, Basses-Pyrénées”. Oker ez banago, Amarako helbide horretan bizi izan zen 1950ean hil arte, beraz, deustuarra sortzez, Donostiakoa bizitzez. Gipuzkoako Diputazioak, bestalde, 1942.eko otsailaren 8an, Probintziako Semeorde izendatu zuen.

Ez dut gaurkorako xedetzat hartu Julio Urkixokoaren curriculum ugaria garatzea. Egin nezakeen, erraza baita hartu bere bibliografia oparoa zerrendatu eta zuoi irakurri. Hitzaldi honen luze iraupenaz konplutuko nuen eta kitto! Badakit, bestalde, zuetariko askok, nik bezain ongi ezagutzen duzuela hori. Zerrendatzekotan, hala eskatzen badit antolatzaileak, hitzaldi honen gehigarri, argitalpenerako utziko dut. Nahiago dut, beraz, bere giroaz, kontestu historikoaz, belaunaldiaz oro har mintzatzea.

Instituzio gizona izan zen. Garai hartan, Euskal Herrian, Prat de la Riba bezalako politiko bat ez genuen agintean gure lau Diputazioetan. Euskaltzale indarren korrelazioak ere ez zuten laguntzen, bestalde. Hala ere, bere anaia Adolfo Gabrielelek, *RIEV* sortu baino urte bete lehenago, 1906an, Bizkaiko Diputazioko presidente zelarik, beste hiruetakoei idatzi zien Euskal Akademia bat, “Laurak Bat” lehendabizikoz instituzionalki bat eginda, sortzea. Hara hor proposamenaren zati esanguratsuenak:

El que suscribe somete a la ilustrada consideración de las Diputaciones vasco-navarras las siguientes bases: 1ª Se crea una Academia de la Lengua vascongada, compuesta de doce individuos de número y de otros académicos que tendrán carácter de honorarios... 2ª Será condición precisa que entre los miembros de número haya cultivadores de todos los dialectos literarios de la lengua euskara. (...) 4ª Las Diputaciones de Navarra, Guipúzcoa, Álava y Vizcaya contri-

buirán al sostenimiento de la Academia... 5ª El nombramiento de los doce individuos de número de que ha de constar, por ahora, la Academia habrá de encomendarse a las mismas Diputaciones hasta la constitución de aquel cuerpo. Una vez que se constituya la misma Academia irá cubriendo libremente las vacantes que ocurran por fallecimiento de alguno de sus miembros, etc, etc.

Porrot egin zuen, tamalez, erakunde amankomun hura sortzeko egitasmoak, Arabako Diputazioak, uko egin zuelako, ez ordea Gipuzkoa eta Nafarroak. Familia arteko gutuneriarik balego, seguru aurkituko litzatekeela presidentearen anaiaren, Julioren, eskua eta aholkua, zeren eta hamabi urte geroago, Oñatiko Kongresu famatu hartan erabaki eta hurrengo urtean Gipuzkoako Diputazio Jauregian sortuko zen Euskaltzaindia Urkixo Diputazio buruak aurreikusitako kopuru eta beste zenbait baldintzetan. Azkue ere ez zen urrun ibiliko Urkixotarren oso adiskide bai zen. Ez ote zuen Julio egitasmo akademikoaren porrot horrek, bere kontutik *RIEV* sortzera bultzatuko? Ikertzekoa litzateke.

Zeren eta *RIEV* bera izan bai zen nolabaiteko eta, ez nolanhiko, instituzio bat. Ez dagokit niri, zuzenean, hau garatzea baitaude ni baino prestatuagoak eta prestuagoak. 1918an Oñatiko Kongresu sonatu hartan, bestalde, Julio izan zen bi erakunde garrantzitsuren sortzaile eta burukide: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia. Biotan izan zen puntarengo, lehenean, buruorde 1930arte eta, bigarreanean, Iker sailburu eta bibliotekari. Gerra zibilaren osteko basamortu negargarrian, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País eskuindar zenbatzuk sortu zenean han zen Julio Urkixo, 1943an elkartearen buru izendatu zuten gainera. Adinean aurrera, ordea, ezin izan zuen luzaro arduradun jarraitu. Real Academia de la Historiako kide laguntzaile gisa erakundeko partaide eta, baita ere, Azkuerekin batera hizkuntzaren Real Academia Españolako kide oso ere, 1926.eko azaroaren 28ko erret dekretuan eraginez, gaztelaniaz besteko hiru hizkuntzen zortzi ordezkari legez sartu bai ziren. Parisko Hizkuntzalaritza elkarteko eta Bordeleko Akademiaren kide ere izan zen, Frantziako Errepublikan. Gipuzkoa honi zegokiolarik, San Telmoko Museoko kide eta Probintziako Monumentuen batzordeko. Esan dezakegu, gainera, hil da laster ere, bere arima instituziozaleak jarraitu zuela, zeren eta Gipuzkoako Diputazioak 1952.eko abenduaren 13an “Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo” sortzea proposatu bai zuen eta hurrengo urtarrilaren 29an erakunde sail hau sortu, geroztik iraun duena Anuarioa, *ASJU* akronimoaz ezagutua eta hain uzta oparoa eman duena.

Giroa, kontestu historikoa eta bere belaunaldiaz zerbait azaltzea nahiko nuke. Nolabait zatikatzearen honela asmatu dut: **1.** 1907 aurretikoa, alegia, bere lehen lanekin hasi eta *RIEV* sortu aurrekoa; **2.** 1907-1919 tarte, hots, lehen Mundu Gerra amaitu eta Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia martxan jarri artekoa; **3.** 1919-1936, Espainiako Gerra Zibila hasi artekoa; **4.** 1939-1950, hots, gerra ostetik heriotza bitartekoa. Lau epealdi horiek, laburbilduz, garatzen saiatuko naiz jarraian.

Lehen aldia, euskal foruen ezabatzetik hurbil, baina kontzertu ekonomikoaz baliaturik –joko maltzur “bikaina” egin bai zuen Cánovas del Castillo

Espainiako gobernu buruak, hots, autogobernu politikoa kendu, euskal diputazioek, handikien esku herri ordezkarien kontrol “parlamentariorik” gabe, Nafarroan 1841 geroztik Gortetik gabe eta, Mendebal Euskal Herrian, Batzar Nagusiak desagertaraziak – Bilboko burgesia mehatzekin, Bizkaiko Labe Garaiekin eta portuarekin aberasten. Hor kokatu behar da Julio Urkixokoa, bere ideologia tradizionalista bereizkuntzarekin, gehienak monarkiko dinastikoak bai ziren eta abertzale ia bakarra, Ramón de la Sota y Llano. Hau “euskalerrriako” liberal fuerista izan zenean, Sabino Aranak “fenicio” deitu zuen, baina, geroago, abertzaletua, zorionez, abertzale pragmatikoa, hori bai, zer izango zen bada burges kapitalista izanda? Kokagune hau gure historiagile euskaltzale gutxik ikertu dute Jurgi Kintana eta besteren batek, salbu, beste la hobeto ulertuko liteke karlista eta Komunioko jeltzaleen arteko harremanak, tartean Resurrección M^a Azkue izanik, sektore biek harreman onekin, beti ere, bere aldizkari, liburu, gramatika, hiztegi eta besterako mezenazgo bila. Kontaktuetan trebea zen, gerotxoago lehen Euskaltzainburua izango zena, beti ere aberats euskaltzaleekin, karlista, abertzale nahiz monarkiko. Sozialistak jadanik asko ziren Bilboaldean, baina, bistan dena, ez dirudunak. D. Resurrección Urkixotarren kaperau izan zen, beraien Deustuko “La Cava” jauregian, unibertsitatetik oso gertu. Foruen galerak erreakzio bat sortu zuen eta, ondorioz, berbizkunde garai bat ekarri zuen eta horren seme zen Julio. Orduko euskaltzaleen harreman sarea, ideologia desberdinetakoa, baina ez hainbeste, zehatzagoa ezagutzeak hobeto lekukotuko luke D. Julio.

Lehen aldi honetan, baita ere, kokatu behar dira Julio Urkixokoaren hasierako lanak. Hasteko hizkuntza unibertsal asmatutakoez izan zuen miresmena. Hain zuzen ordukoa da *Konils Volapükik pelovepolöl(s) fa Volapükels difik e Pekonletöl(s) fa* liburuxka, 1889an argitaratua, beraz, dirudienez lehen lana, hamazortzi urterekin, alegia, estudiante zela egina. Ez zuen luzaro iraun bide horretatik, zeren eta 1905ean, bere familiakoa zen *La Gaceta del Norte* egunkarian argitaratu bai zituen artikulu bi, lehena, azaroaren 8an: “El Esperanto es una utopía” eta hil bereko 26an, beste hau: “Ni volapük, ni esperanto. Desengaño de un volpükista bilbaíno”. Desengainu hau uste dut ondo suertatu zitzaizola euskalaritzarako, gai honetara murgildu bai zen buru-belarri D. Julio. Garai honetan hasi zituen zenbait hizkuntzalari edo euskalari atzeritarrekin harremanak, hala nola Julien Vinsonekin 1905ekin eta Hugo Schuchardtekin 1906an. Urte hauetako bere zenbait lanek erakusten dute euskara edota euskal gaien inguruko saioez aldizkarietan idazten hasita zegoela, hala nola, 1905ean, *Euskal-Erria* izenekoan, “El Conde de Peñafloreda y las Fiestas Euskaras de Vergara” eta urte berean eta hurrengoan, *Revue de Linguistique* delakoan “Un catecismo vascongado de 1759 (de Francisco Antonio de Aguirre)”; urte berean, 1905an, alegia, ingelesez “An early Latin-English-Basque dictionary”, *Notes and Queries* delakoan; “Un manuscrito vasco-latino (de J. De Etcheberry) que se creía perdido”, 1905ean, *El Correo de Guipúzcoa* argitaratuak; 1905an, “Notas bibliográficas acerca de la primera edición del libro del Capitán Ivan de Perocheguy”, Donibane Lohizunen, han bizi zelarik; “Los precursores de Azkue. Manuscritos de Pouvreau y Pierre d’Urte” eta “*De re litteraria*. Bibliografía vascongada (sobre Vinson ‘Les études basques de 1901 à 1906)’”; berriz ere bibliografiaz, *Revue de linguistique*-n, 1906an, “Notas de bibliografía vasca. El cate-

cismo de Arzadun” idazlana. Hau guztia diotsuet adierazteko 1907a aurretiaz, alegia, *RIEV* sortu baino lehen, zer gai desberdin jorratzen hasita zegoen, honetan ere bere aniztasuna nabarmenduz.

Bigarren aldia, bistan dena, *RIE* Vera gehienbat murgildua izan zuela bista da, Lapurdin bizi zenekoa da, hots, aldizkaria martxan jarri, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia sortu, bietako sortzaileetarikoa izan bai zen eta Europar Gerra amaitu artekoa. Honen bukaeran Donibane Lohizunetik Donostiara etorri bai zen bizitzera, Zentenario plazara hain zuzen. Ez dugu, hemen, *RIE* Veko bere lan erraldoi eta zuzendaritza jorratuko, hori beste hizlariak egin baitute. Interesgarria litzateke, norbaitek, Jurgi Kintana Goirienak Azkuerekiko doktorego tesiaz egin bezalaxe, Julio Urkixokoarekin egitea, zeren eta horrela, besteak beste, zehatzago jakingo genuke, bigarren aldi honetan, 1907-1919koan, zeintzuk lan eta gestio egin zituen Oñatikiko Kongresu famatuaz, Eusko Ikaskuntza sortzeaz, Euskaltzaindia martxan jartzeaz eta abarrez. Seguru nago Azkueren bikote intelektual pragmatikoa izan zela. Beraz, *RIE* Vez gain, hiru eginkizun horiez nire gaurko hausnarketaz landa, hitzaldi edo mahai inguru garatuago bat eskatzen dute, agian, hiru laguneko mahai inguru bat, Kongresuaz, Ikaskuntzaz, Akademiak, girotzeaz, gestioez, harremanez, gutuneriez eta abar. Gauza interesgarriak agertuko lirateke, seguru asko.

1919-1937 bitarteko aldia izango litzatekeela hirugarrena esan dugu arestian, hots, bi gerra artekoa, hain zuzen. Berriz ere diot, *RIEV*-Julio Urkixorekiko, nire aurrekoek esana dute. Eusko Ikaskuntzan eta Euskaltzaindian D. Juliok egindako lana ezinbestekoa suertatu zen. Eusko Ikaskuntzaren akta eta agiriek aztertzetik ez dut izan, bai ordea, Euskaltzaindiarenak. Honetan ikusten da D. Julioren presentzia urte hauetan ez zela izan Azkueren moduko dizdiratsua eta oparoa, baina bai ordea, diskretua, apala baina efektiboa, diodan, hau bermatzeko Koldo Mitxelenak Bizkaiko Bibliotekan, 1972ko maiatzaren 12an –han nintzen entzule eta antolakizun laguntzaile– esandakoa dakarkizuet:

En el fondo, acaso haya sido Urquijo uno de los más radicalmente críticos, a pesar de su posición política más bien conservadora y de tantas otras cosas. No debemos olvidar, en efecto, que mucho de lo que nos parece tímido en su obra no es más que una distorsión marcada por la distancia: nos separan de él demasiados años y demasiadas mutaciones. (...) Porque la modestia, en el mejor sentido de la palabra, fue una de las cualidades más manifiestas de don Julio. De ello dan fe incontables testimonios, desde el excepcional del doctor Areilza... Era, en una palabra, una modestia crítica: la de quien empieza por juzgarse fríamente a sí mismo, antes de juzgar a los demás.

Azkue lekeitiarra, Eleizalde bergararra eta Campion iruindarrarekin batera Oñatikiko Eusko Ikaskuntzaren lehen Kongresuan, lau Diputazioen babespean, Akademiaren lau sortzaileetarikoa. Gerotxoago 1919ko irailaren 21ean, orduko Gipuzkoako Diputazioan egindako bilkuran, orduko euskal aldizkarien ordezkariak –zer berme hobeagorik!– hasierako beste zortzi euskaltzain osoek hautatu zituzten, zazpi herrialdeetakoek hain zuzen. Asti gehiago daukadanean, garai honetako akta guztiak eta batzar karpetak arakatu ostean, orain diodana zehatz lekukotzeko asmoa dut. Gehiago ez luzatzeko, oroit

dezadan, lehen karguak hautatu zirenetik Euskaltzaindiaren Iker sailburua izan zela eta barne eginkizun horrek ez zion trabarik egiten, bere Akademia lagunekin eztabaida irekiak izatea, hala nola, Eleizalderekin onomastika gaietan, bereziki ponte izenen arloan. Bere bibliografiari begirada bat botatzea besterik ez dugu. Buka dezadan sail hau berriz ere Mitxelenak lehen aipaturiko Bilboko omenaldi horretako mintzaldian esandako hitzokin: “Sería, con todo, dejarse engañar por las apariencias el apresurarse a concluir que aportó poco o nada a la lingüística vasca y, como de paso, a los estudios lingüísticos entre nosotros. Aportó mucho, precisamente porque, con una certera apreciación de la situación, se conformó con un papel de mediador, esencial en aquellos momentos”.

Laugarren aldia, gerra ostetik bere heriotza bitartekoa da. Urte latzak edozein euskaldunentzat, latzagoak euskaltzaleentzat. D. Julio adinez aurrea, benetan gerra zibilaz hurbil ukitua, zer trauma izango zuen bere anaia Jose Maria “gorriak” hil bai zuten, Donostian, sublebatuen kontrako eraso batean. Irabazleen bandokoa izan arren, norbaitek oraintsu esan duenez, bakea galdu zuten karlista horietakoa izan zen. Arrazoi guztiongatik, ez zuen gerra aurreko bizitasunik izango, baina, hala eta guztiz ere aspaldian desagertua zen gure elkarerik historikoena berbizten partaide izan zen 1943an, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, hain zuzen. Erregimen berriaren aldeko eskuindar euskaltzaleen ekintza interesgarri bakanetarikoa izan zen. Ez hori bakarrik, lehen presidente izan zen eta, bi urte beranduago, 1945ean, elkarte horren *Boletín*aren, gerra ostean, hain garrantzitsu izango zenaren lehen zuzendaria ere D. Julio izan zen.

Ez zituen aldi honetan gauza asko idatzi. Horregatik, atzeman ditudanak zerrendatuko ditut: *BRSBAP*, 1945ean: “Vergara en el último tercio del siglo XVIII según un minerólogo sueco. El primer platino enviado a Suecia”; 1946an, “Caro Baroja, J. Sobre el vocabulario de las inscripciones ibéricas”; 1947an, “Bausani, A [euskalari italiarra, euskaltzain ohorezkoa izendatu zena]: *El enigma del vascuence...* apostilla de Julio de Urquijo”. Emaizta urria, arrazoiak: ezina?, nekea?, etsipena?

Amaitzeko bere anitzasun oparoa azpimarratzea nahi dut, bi aldetatik ordea. Lehenik D. Juliok aztertu, ikertu eta argitaratu zituen gaiengatik, edota, aztertzen, ikertzen eta argitaratzen bultzatzen edo babes zituenengatik. Bere bibliografia oparoa da horren lekuko: hiru ehun lanetik gora zenbatu ditut, liburuen, liburuxken, artikuluen, rezensioen eta abarren batuketa egina. Gaien aldetik ere anitzasun aberatsa du, kuriositatez ondo hornitua: hizkuntzalaritza orokor eta konparatua, paremiologia, onomastika, antzinako kantak eta istorioak, euskararen jatorria, folklorea, arkeologia, heraldika, etimologia, musika, literatura, asmatutako hizkuntza unibertsalak, Bilboko merkataritza, gai bitxi edo bakanak: “Bolchevismo y vascológica”. En el Congreso de La Haya. El terrible ruso Jakovlev” *El Pueblo Vasco* egunkarian 1928an argitaratua eta abar.

Bigarren anitzasuna, bera mugitzen zen giroaren anitzasun ideologikoa da. Ondo konpontzen zela dirudi anitzasun horren barnean. Bera eskuindarra

izanik, erregetiarra, karlisten artekoa, Hego Euskal Herriko erregetiar euskaltzaleen gehiengoa eremu horretan zegoen, dinastiko euskaltzaleek gutxi bai ziren eta “euskalerrriakoak”, hots, azken liberal fuerista gehienak, abertzale eremura pasatuak ziren gehienak. Izan zituen, geroago, errepublika zaleen artean ere lagunak, ANVko Justo Garatek berak esan zidan, egun batez, nola bera “Conjunción republicana-socialista” zerrendatik, Telesforo Monzon EAJ-tik eta Julio Urkixo eskuindarren aldetik, hautesbarruti berean, Bergarakoan, lehiatu ziren Errepublikako Gorteetarako diputatutza aulkia lortzeko. Hala eta guztiz ere, adiskide, Justok zinoztanez. Gauza bera esan daiteke bera eta Eleizalde abertzale eta “Comunión Nacionalista Vasca”ko EBBko, oker ez banago, beraien artean, onomastikaz eztabaida gogorak, baina Euskaltzaindiko Zuzendaritzako, Urkixo Julio Iker sailburu eta liburuzain; Eleizalde, idazkari. Tamalez, gaur egun eskuindar erregetiarren artean ez dugu euskaltzale lankiderik aurkitzen, behinola bilera batean, oraingo beste Urkijo bati esan nion bezalaxe, bere deitura berbereko D. Julio lukete euskalgintzako anitzaren ispilu. Begiratu beharko lukete, eskuin eta ezkerreko intelektual askok ispilu horretara. Abertzaleek ere, aniztasun horren ispilu hori beraien-tzat ere desiragarri dela.